

## ZURE ELKARTASUNA KONPROMISO ZEHATZAK ESKATZEKO

STEE-EILASEk ez ditu aipatu murrizketak onartzen eta borrokan jarraituko du. Sektorearen egoera ez da aldatuko Administrazioak murrizketak eten arte (2012ko urtarrilaren 1ean?), edota Epaitegi Gorenaren ebazpenak eta banakakoen erreklamazioek enpresak ordaintzera behartu arte. Baina, bien bitartean, zenbait pertsonaren egoera larria izan daiteke. Gezurra badirudi ere, Haur Hezkuntzako zenbait langile ez dira mileurista izatera ere iristen; izan ere:

- a) Euskal hezkuntza sistemako lan-baldintzarik okerrenak dituzte.
- b) Gainontzeko lankideekin konparatuta, gehiegizko eta neurrigabeko murrizketak pairatzen ari dira.

STEE-EILASen ustez, egoeraren erantzukizuna ez da erakunde bakarrarena:

✓ Hezkuntza Administrazioak ez du bere betebeharra betetzen eta ez ditu zenbait zerbitzu behar bezala finantzatzen; kasu batzuetan, bere legezko betebeharrei ere muzin egiten dielarik. Benetako beharren aurrean, begiak ixten ditu eta gastu publikoa zentzuzkoa litzatekeena baino gehiago murriztean setaturik dago. Jarrera hori onartezina da eta salatu egin behar dugu.

✓ Halaber, *Kristau Eskolaren* jarrera (bide erraza hartzea eta maila horietako soldatak % 4.85 murriztea) ulertezina da. Murrizketa horiek behin-behinekoak izan arren —behin betiko ebazpenak hala ebatziko balu—, zentzugabeak dira eta eragina dute pertsona askoren eguneroko bizitzan.

✓ Eta sindikatuok ere egoeraren erantzule gara. Izan ere, aipatu langile-taldearen ordezkari garenez gero, Gizarte Ekimeneko Hitzarmenean jasotako langileen lan-baldintza kaxkarren erantzule gara.

***EGOERA LARRIA DA ETA ZURE ELKARTASUNA BEHARREZKOA.  
ZURE SINADURA ESKATZEN DIZUGU, HEZKUNTZA SAILARI,  
KRISTAU ESKOLARI ETA GAINONTZEKO SINDIKATUEI  
AURKEZTUKO DIZKIEGUN HIRU ESKARIAK BABESTEKO.***

✓ Hezkuntza Sailari EXIGITZEN DIOGU 2010-11 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko eskoletarako diru-laguntza deialdia arautzen duen 2010eko urriaren 7ko aginduko 5.2. artikulua ez aplikatzeko, eta diru-laguntza osagarria berma dezala ikastetxeek aipatutako aginduan jasotako finantzaketa-moduluetan diru-laguntza guztia jaso dezaten. 5.2. artikulua iruzur onartezina da.

✓ Ikastetxe guztiei ESKATZEN DIEGU, soldata-murrizketen auzia behin betiko konpondu artean, Haur Hezkuntzako lehen zikloko mailetan 2010eko abendura arte aplikatutako murrizketa berberak ezar ditzatela. Gizartearen beharrak kontuan hartuta, arrazoizko eskaera da eta, gure ustez, ikastetxeen kontularitza orokorrean eragin ekonomiko txikia duena. Hortaz, posible da aplikatzea legea inolaz ere urratu gabe.

✓ Sektorean ordezkari duten sindikatuak GALDEGITEN DIEGU langile hauen arazoak (soldata, lanaldia...) konpontzeko etorkizuneko negoziatioetarako benetako konpromiso egiaztagarria hartzeko. Horretarako, hasteko, langileok irakasletzat jo behar dira. Eta ez da hobekuntza esanguratsuak jasotzen ez duen hitzarmenik izenpetu behar.

2011ko maiatza.

